

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek bere balorezko proposamena egiteko, hori bera bezeroei helarazteko, bezeroekiko harremanak mantentzeko eta, diru-sarrerak sortzeko egin beharreko jarduerak dira; hau da, ondo jardun dezan.

Funtsezko jarduerak hauek hiru taldetan sailkatzen dira:

- Produkzioa
- Arazoak konpontzea
- Plataformako edo Sareko jarduerak



Esate baterako, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek, 2020ko konfinamenduan funtsezkoak ez ziren jardueren etetea iragarri zuen, eta funtsezko jardueren zerrenda bat egin zuen. Hauek dira adibide batzuk:

- Elikagaiak ekoizteko nekazaritza, abeltzaintza eta industria jarduerak
- Elikagaien eta salgaien garraioa
- Medikuntza, osasun eta farmazia jarduerak
- Espainiako Estatuko segurtasun indarrak
- Energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura
- Gas eta ur hornidura
- Petrolioaren fintzea eta erregaien hornidura
- Komunikabideak

Gure funtsezko jarduerak ahuek izango dira.

- Ekoizpena: egunerokotasunean produktu berriak diseinatzeko proiektuak izango ditugu, ekoizpena eta entregatzeko eginbeharra indarrean mantenduz. Beti saiatuko gara produktu berritzaileen proiektuak lanean mantentzen.
- Arazoak konpontzea: arazoak ahalik eta eguneratuen izatea saiatuko gara bezeroentzako telefono eta gmail bat emanaz.
- Plataformako edo sareko jarduerak beti aktibo mantenduko ditugu kudeaketa mantenduz, sustatuz eta berrituz. Web orrialdea programatuko dugu lehen erantzun azkarra bot baten bidez izateko eta zalantzak jarraitzen badute bezeroentzako arreta telefono bat jarriko dugu.